

DBH.1

SAIO KOPURUA: Aurretik 1 / Ekoetxea 1 / Ondoren 1



IKASGAIA	IKASGAI ERLAZIONATUAK	LANDUKO DEN GAI EKOSOZIALA	EUSKO JAURLARITZAREN INGURUMEN-POLITIKAK
Balio zibiko eta etikoaren heziketa	➤ Natura zientziak	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Ekodependentzia</li> <li>➤ Krisi zibilizatorioa</li> <li>➤ Justizia</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Kontsumoa</li> <li>➤ Ohitura jasagarriak</li> <li>➤ Aldaketa klimatikoa</li> </ul>

## Ikas egoeraren markoa

**TESTUINGURUA.** Kontsumo eta ekoizpen modu iraunkorrak behar dituen eta klima aldaketaren ondorioen aurka egin behar duen mundu honetan, ikasleen betebeharra da irtenbideak zein diren ezagutzea eta baloratzea, horretarako Izarratz-ko magalean egingo den ibilaldi paregabe honek begiak eta bihotza liluratzeaz gain gaur egun baserritarren egoera eta hauek bizirauteko dituzten zailtasunak ezagutara eramango dizkie.

### Abiapuntua

*Auri sagusarrak ez ditu topatzen bere lagunak, ez daki nora joan diren baina susmoa du gizakiak duen eraginagatik beraien bizilekuak desagertzen ari direla eta bere lagunak ez daudela gustura Izarratzen bizitzen. Ondorioz beste leku batzuk esploratzera joan dira. Non ote daude? Nola bueltatuko ote dira? Ohitura berdinekin edo aldatuta?*

**AZKEN PRODUKTUA.** Ibilbidea herriko merkatu eta Elikagunean bukatzen dela aprobetxatuz ikasleek taldeka erosketa arduratsua edo ez arduratsua egin beharko dute, ondoren hauek konparatu eta gure ohitura egokiak zein izan beharko luketen ikasiko dute. Etxera haziak dituen arkatz bat eramango dute beraiek ere frogak egin ahal izateko. Arduraz jokatzeko onuragarria izango da bai guretzat eta baita ingurumenarentzat ere. Komunikaziorako irakasle/ikasleei egindako lan edo ekintzen argazkiak bidaltzeko eskatuko zaie.



## HELBURU KOMPETENZIALAK

- Kontsumistak direla jabetzea eta beraien egunerokotasunean kontsumo mota ezberdinak gauzatzen dituztela ezagutzea.
- Garaiko eta bertako produktuak ezagutzea eta hauek kontsumitzeak gure ingurunean duen inpaktuaz kontzientziatzea.
- Baratzak suposatzen duen lanaz jabetzea, baserriak ezagutzea eta bertako lana baloratzea.
- Gehiegizko kontsumoak edo kontsumo desegokiak ingurunean dituen ondorioak ezagutzea.
- Kontsumo arduratsua zer den ezagutzea eta beraiek nola egin dezaten jakiteko tresnak ematea.
- Merkatua, Elikagunea eta hauen filosofia ezagutzea.
- Klima aldaketa eta kontsumoaren kontzeptuak lotzea beraien eguneroko bizitzako adibideekin.
- Gizakiaren ohiturak klima aldaketan duten eragina ezagutzea modu orokor batean paisaiaren behaketaz.
- Klima aldaketarako prestatzeko irtenbideak ezagutzea eta horiek ekintzara eramatea, eguneroko ekintzen konpromiso indibidualaren bidez.
- Auri eta bere lagunaren istorioarekin konektatzea
- Etxean gaiaren inguruan hitz egitea.

## Curriculumaren zehaztapenak


## BALIO ZIBIKO ETA ETIKOAREN HEZIKETA

FUNTZ. KONP	DESK.	KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	OINARRIZKO JAKINTZAK
HKK KD KPSII HK	2, 1, 1, 1,2, 3	<b>1. Norberaren nortasunari eta norberaren bizi-proiektuari buruzko gai etikoei dagokien guztia miatzea eta ikertzea, horri buruz hausnartzeko jarrera sortuz, autoezagutza sustatzeko eta planteamendu eta iritzi moralak modu autonomoan eta arrazoituan eraikitzeke.</b>	1.1. Norberaren eta bere dimentsio zibikoaren eta moralaren kontzeptu egokia eraikitzea, bere izaeraren eta nortasunaren dimentsio anitzak aitortuz, giza izaeraren eta gizon edo emakume izateko moduen inguruko zalantza filosofikoen, ikerketaren eta elkarrizketaren bidez	<b>A. Autoezagutza eta autonomia morala</b> – Identitate pertsonala eta giza izaera. Identitatearen eraikuntzan parte hartzen duten faktoreak Generoestereotipoak identitatearen eraikuntzan. Autonomia eta heteronomia.
HKK KD HK KAKK	5, 3, 5, 1,2, 3, 4, 1	<b>2. Ingurune analogiko eta digitaletan jardutea eta elkarreragitea, errespetuzko elkarrizketa baterako beharrezkoak diren arau eta balioekin bat etorriz, bizikidetzak baketsua, errespetuzkoa, demokratikoa eta guztion onerako modu aktiboan konprometitua sustatzeko duten garrantziaren aitortpen oinarritutik abiatuz, arau eta balio zibiko eta etikoei buruz hausnartzeko, bizitza komunitarioa arautzeko eta hainbat testuingurutan modu eraginkorrean eta justifikatuan aplikatzeko.</b>	2.1. Ingurune analogiko eta digitaletan herritartasun aktiboa eta demokratikoa sustatzea, sor- menezko prozedurak eta printzipio zibiko, etiko eta demokratiko esplizituak aplikatuz erabaki kolektiboak hartzean, ekintza koordinatuak planifikatzea eta arazoak konpontzea eskatzen duten talde-jardueretan errespetuz, elkarrizketa bidez eta modu eraikitzailean parte hartuta.	<b>B. Gizartea, justizia eta demokrazia</b> – Justizia. Desparekotasuna eta injustizia toki-testuinguruan eta testuinguru globalean: arazoak eta hobetzeko proposamenak. Bidezko merkataritza. Zergen balio soziala.
STEM KPSII HK EK	5, 2, 1, 2, 3, 4, 1	<b>6. Gizakiak ingurunean egiten duen esku-hartzearen kausak eta ondorioak kritikoki aztertzea, maila soziala, ekonomikoa, kulturala, teknologikoa eta ekologikoa integratuz eta pertsonen eta planetaren errespetuarekin, zaintzarekin eta babesarekin kontsekuenteak diren ohitura iraunkorrak praktikan jarriz, arazoei aurre egiteko, konponbideak bilatzeko eta konponbidean banaka eta elkarlanean jarduteko gaitasuna garatzeko.</b>	3.1. Planetaren mugak eta gure bizitzaren eta ingurunearen arteko interkonexio, elkarren mendekotasun eta ekomendetasuneko harremanak ulertzea, Lurreko bizitzari eragiten dioten arazo ekosozial larrienen kausak eta ondorioak aztertuz. 3.2. Garapen iraunkorra lortzeko etikoki konprometitutako bizimoduak sustatzea, bere kabuz eta bere ingurunean baliabideen, hondakinen eta mugikortasunaren kudeaketa jasangarrian, bidezko merkataritzan, kontsumo arduratsuan, naturaondarearen zaintzan, aniztasun etnikokulturalarekiko errespetuan eta animalien zaintza eta babesean engaiatuz. 3.3 Klima-larrialdiari eta ingurumen-krisiari aurre egiteko hainbat planteamendu zientifiko, po- litiko eta etiko baloratzea, horiei buruzko azalpenaren eta argudio-eztabaidaren bidez.	<b>C. Iraunkortasuna eta ingurumen-etika</b> – Planetaren mugak eta giza ekintzen aztarna ekologikoa. Klima-larrialdia. Arazo ekosozialen inguruko hainbat planteamendu etiko, zientifiko eta politiko. – Bizi-ohitura iraunkorrak: baliabideen eta mugikortasunaren kudeaketa. Kontsumo arduratsua. Elikadura eta kontsumoa. – Energia-eredufosila eta energia berriztagarri eta garbiak. – Gaur egungo erroka eta arazo ekosozialak tokiko ingurunean eta ingurune globalean. – Ingurumen-kontzientzia. Izaki bizidunen eta planetaren errespetua, babesa eta zaintza. – Erantzukizun ekosozial indibiduala eta kolektiboa. Tokiko arazo ekosozialei eta arazo ekosozial globalei alternatibak.



## NATURA ZIENTZIAK

FUNTZ. KONP	DESK.	KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	OINARRIZKO JAKINTZAK
STEM KD KPSII HK EK	2, 5, 4, 1, 2, 3, 4 1	<b>6. Ekintza jakin batzuek ingurumenean eta osasunean dituzten ondorioak aztertzea, zientzien funtse- tan oinarrituz, garapen iraunkorrekina bateragarriak diren eta planetaren osasun indibiduala eta kolektiboa mantentzea eta hobetzea ahalbidetzen duten ohitura arduratsuak sustatzeko eta hartzeko.</b>	<p>6.1. Ekintza jakin batzuek ingurumenean eta izaki bizidunen osasunean dituzten ondorioak ezagutzea, zientzien oinarriak eta irizpide zientifikoak aplikatuz.</p> <p>6.2. Biodibertsitatea babestearen, ingurumena zaintzearen, inguruneko izaki bizidunak babestearen, garapen iraunkorren eta bizi-kalitatearen garrantziaz argudiatzea, datu eta arrazoi zientifikoak erabiliz.</p> <p>6.3. Ingurune hurbilean ohitura jasangarriak proposatzea eta hartzea, norberaren eta besteen jarduerak aztertuz eta norberaren arrazoibideetan, eskuratutako ezagutzetan eta eskura dagoen informazioan oinarrituz.</p> <p>6.4. Ohitura osasungarriak eta arduratsuak proposatzea eta hartzea, norberaren eta besteen ekintzak aztertuz (elikadura, higiena, gorputz-jarrera, jarduera fisikoa, pertsonen arteko harremanak, atsedena, pantailekiko esposizioa, estresaren kudeaketa, sexu-praktiketan segurtasuna, substantzien kontsumoa...), eta norberaren arrazoibideetan, eskuratutako ezagutzetan eta eskura dagoen informazioan oinarrituz.</p> <p>6.5. Inguruneko paisaia eta ekosistemak interpretatzea, bertako elementuak aztertuz eta giza ekintza jakin batzuen ingurumen- inpaktuari buruz hausnartuz.</p>	<p><b>C. Interakzioa eta Energia</b></p> <p><b>Ekologia eta jasangarritasuna</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>– Inguruneko ekosistemak, horien osagai biotikoak eta abiotikoak, eta erlazio intraespezifiko eta interespezifiko motak.</li> <li>– Atmosferaren eta hidrosferaren funtzioak eta horiek Lurreko bizitzarako duten funtsezko egin-kizuna.</li> <li>– Ekosistemen kontserbazioaren, biodibertsitatearen eta garapen iraunkorreko eredu bat ezar-tzearen garrantzia.</li> <li>– Klima-aldaketaren kausak eta horrek ekosistemetan dituen ondorioak.</li> <li>– Ohitura jasangarrien garrantzia (kontsumo arduratsua, hondakinen kudeaketa, ingurumenaren errespetatua...).</li> <li>– Ingurumenaren, gizakien eta beste izaki bizidun batzuen osasunaren arteko erlazioa: one health (osasun bakarra).</li> </ul>



DBH.1

SAIO KOPURUA: Aurretik 1 / Ekoetxea 1 / Ondoren 1

## Ikuspegi ekosoziala

## IKASKUNTZA EKOSOZIALA

- \* 1. Giza ekodependentzia barneratzea. Bizi-sarearen parte garena ohartzea.

- \* 7. Klima-aldaketa zer den, haren kausak, ondorioak eta konponbideak ezagutzea.



## EBALUAZIO IRIZPIDE EKOSOZIALAK

- \* Bizi diren eta bizi ez diren elementu guztien arteko lotura ezagutzea, elementu horiek osatzen baitituzte, oro har, gure mende dauden bizi-baldintzak
- \* Landareek, animaliek, mikroorganismoek eta haien ingurumenak (geosfera, hidrosfera, atmosfera) ekosistemen auto-mantentze-lanerako nola eragiten duten erlaxionatzea.
- \* Gizakia ekosistema guztien mende dagoela adieraztea/ Gizakiaren buruaskitasuna ez adieraztea.

- \* Klima-aldaketa zertan datzan azaltzea.
- \* Klima-aldaketaren kausa nagusiak modu haztatuaren zerrendatzea.
- \* Klima-aldaketaren ondorio nagusiak eta haien eragin diferentziala zerrendatzea, gizarte- eta lurralde-faktoreen arabera. Adibidez, itsas mailaren gorakadak kostaldean bizi diren biztanleengan eragin handiagoa duela erakustea, eta, horren barruan, pobretua.
- \* Klima-aldaketa sistema sozio-ekonomikoarekin lotzea.
- \* Klima-aldaketek gizarte-aldaketetan duten eraginari buruzko judizio argudiatuak egitea.
- \* Klima-aldaketarekin lotuta planteatzen diren arazoei aurre egiteko irtenbide indibidualak, komunitarioak eta sozialak diseinatzea.

## OINARRIZKO JAKINTZA EKOSOZIALAK

- \* Ekomendekotasunaren kontzeptua. Gizakiak bere beharrak modu autonomoan asetzeko ezintasuna, naturaren laguntzarik gabe.
- \* Funtzio ekosistemiko nagusiak: ongarritzea, ura eta airea araztea, polinizazioa, klima erregulatzea, etab.
- \* Baliabide naturalen eta hustubideen mendekotasun-maila (materialen zikloak ixtea ahalbidetzen duten atmosfera bezalako espazioak). Sozietateak/ekonomiak.
- \* Baliabide energetikoen eta materialek eta ekosistemek eta klimak gizateriaren historian izan duten eragina.
- \* Klima-aldaketaren kausak: erregai fosilak erretzea eta lurzorua erabilera aldatzea (batez ere nekazaritzako industria-ereduarekin lotuta). Efektua handitzea berotegi-efektuko gasen isurketagatik.
- \* Klima-aldaketaren ondorioak: muturreko fenomeno meteorologikoak (lehortea, uholdeak, bero-boladak, etab.), suteak, izotza urtzea, itsas maila handitzea, lurzorua emankortasuna jaiste, basoak galtzea, ozeanoaren azidotzea, etab. Klima-aldaketaren eraginen arteko erlaxioa.
- \* Klima-aldaketaren aurkako neurriak gobernuaren mailan. Nazioarteko (Kyotoko Protokoloa, Parisko Akordioa) eta estatuko akordio nagusiak. Neurri eraginkorrak eta irismenaren balorazioa.
- \* Klima-aldaketaren aurkako neurriak maila kolektiboan: erazketen aurkako borrorak, energia-kooperatibak, agroekologia, etab.
- \* Klima-aldaketaren aurkako neurriak maila indibidualan: mugikortasun motorizatua murriztea, dieta begetarianoak eta hurbiltasunekoak, kontsumoaren urritasuna, etab. Neurri eraginkorrak eta irismenaren balorazioa.

## DBH.1

## SAIO KOPURUA: Aurretik 1 / Ekoetxea 1 / Ondoren 1

## IKASKUNTZA EKOSOZIALA

- \* 23. Justizia soziala balioestea premiak asetzeko gaitasun unibertsal gisa (biziraupena, babesa, afektua, elkar ulertzea, parte-hartzea, aisia, sorkuntza, identitatea eta askatasuna), mendean dugun natura kontserbazteko esparru baten barruan. Unibertsalak izan ezin daitezkeen praktikak pribilegiotzat hartzea.

## EBALUAZIO IRIZPIDE EKOSOZIALAK

- \* Norberaren beharrak identifikatzea eta gogobetetzailleetatik eta kapritxoetatik bereiztea.
- \* Gogobetetze iraunkorrak eta bidezkoak ez direnak bereiztea. Adibidez, honako hauen arteko aldea: elikagai industrialak eta agroekologikoak, naturako aisialdi-eredua eta luxuzko resort bat kostaldeko lehen lerroan, etab.
- \* Justizia soziala defendatzea, beharren asetze unibertsal gisa.
- \* Interdependentzia eta ekodependentzia justiziarekin erlazionatzea.
- \* Ditutzen pribilegioetakoren bat gainditzen duten aldaketa pertsonal batzuk erakustea.

## OINARRIZKO JAKINTZA EKOSOZIALAK

- \* Gogobetetze iraunkorrak eta bidezkoak.
- \* Gutxieneko kontsumo sozialak oinarrizko premiak asetzeko, eta gehieneko ingurumen-kontsumoak muga ekosistemiko eta fisikoen barruan sartzeko.
- \* Kontsumismoa, injustizia soziala, planetaren degradazioa eta pribilegioak.
- \* Bidegabeko kontsumoak (hegazkina, mugikorra, dieta haragijalea, etab.).

Euskal Autonomia Erkidegoko curriculumaren kompetentzia esparruarekin lotura zuzena izateaz gain, dimentsio ekosoziala indartu nahi izan dugu gure ikas esperientzietan. Horretarako, FUHEMek (Fundación Benéfico-Social Hogar del Empleado) proposatutako ikaskuntza ekosozialak ere sartu dira modu osagarrian. Begirada ekosozialaren integrazioan erreferentzia da FUHEM.



DBH.1

SAIO KOPURUA: Aurretik 1 / Ekoetxea 1 / Ondoren 1

## Metodologia



## ESTRATEGIA

Araoetan  
oinarritutako  
ikaskuntza

Gogoetan  
oinarritutako  
ikaskuntza

Ikaskuntza  
kooperatiboa

ESTRATEGIA  
EKOSOZIALAK

Ikuspegi  
sozioafektiboa

Ekintzarako  
ikaskuntza

Ikaskuntza  
aktiboa

Ikuspegi holistiko  
eta kritikoa



## TEKNIKAK

**OHIKOAK:**

Role-playing

Ikus-entzunezkoak

Txoko edo  
ingurunezkoak  
(Xaguxatar bidea)

Entzute kolektiboa

Azalpenak  
talde handietan

**EZOHIKOAK:**

Beste batzuk: azoka

